

BAZTANGO UDALAK KULTUR ERAKUNDEEI EMATEN DIZKIEN DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN OINARRIAK

Baztango Udalak elkarteek eta taldeek jarduera soziokulturalak antola ditzaten babestearren, norgehiagoka aritzeko oinarri hauek onetsi ditu.

1.XEDEA

Jarduera soziokulturalak antolatzeari diruz laguntzea, betiere ondoko ezaugarri hauek badituzte:

- a) euskararen erabilerari laguntzen diotenak.
- b) formakuntzakoak (ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak...).
- c) sormenekoak (erakusketak...).
- d) artistikoak (antzezlanak, bideo emanaldiak, kontzertuak...) edo izaera antzekoa duten bertze batzuk.
- e) Herritar guziendako irekiak izatea.

1.1 Deialdi honetatik kanpo ondoko jarduerok gelditzen dira:

1. Hezkuntza programetan aurreikusitako edo horiei lotutako irakaskuntza-jarduerak.
2. Kirol-jarduerak.
3. Herriko bestetakoak, gizarte-laguntzakoak.
4. Udalerritik kanpo egiten direnak.
5. Nafarroako Gobernuak edo bertze erakunde batzuek diruz erabat lagunduak.
6. Egoitza edo lokalak egokitze lanak edo hirigintza arloko bertze edozein lan.
7. Jardutze edo funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak...).

1.2. Hauek izanen dira diruz lagunduko direnak:

- a) Antolakuntza. Kultur proiektua egiteak eta garatzeak zuzenean eragiten dituen gastuak baino ez dute diru-laguntza jasoko. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu bezala, ez osorik, ezta zati baten ere, erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeak eragindako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak, egitura funtzionala mantentzeko gastuak...).
- b) Hornikuntza edo ekipamendua.

2.BETEBEHARRAK

Dirulaguntza hauen onuradunek ondoko betebeharrak hauek dituzte:

1. Irabazteko asmorik gabeko elkarteak izatea.
2. Zerga egoitza eta helbide soziala Baztanen izatea.
3. Zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketa egunean izatea eta Baztango Udalarekin zorrik ez izatea.
4. Ezin izanen dute diru-laguntza hauen onuradunak izan 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzen gainekoak, 13. artikularen 2 eta 3 ataletan ezarritako egoeraren batean dauden erakundeak.

DEIALDIA ETA IZAPIDEA

Eskabideak aurkezteko epea urte naturaleko azaroaren 10ean . Eskabideak Baztango Udaletxeko Erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira. Deialdian aurkezteak oinarri hauek onartzea dakar eta eskabideak emandako ereduaren arabera bete beharko dira. Jarduerak deialdiaren urte naturala akitu baino lehenago egin beharko dira.

Diru-laguntzak emateko prozedura antolatze eta bideratzeko organo eskuduna Alkatetza edo honek ahalmen hori eskuordetzan eman dion organoa izanen da.

Balorazioa. Eskabideen Ebazpen-proposamena egiteko eskuna izanen den balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute: Kultura zinegotziak, Kultura teknikariak eta talde politiko bakoitzeko izendatutako zinegotzi batek.

Hala berean, balorazio-batzordeak haren kide ez diren teknikarien aholkularitza eskatu ahal izanen du.

3. DIRULAGUNTZA EMATEA

Emanen den gehienezko zenbatekoa ez da diruz laguntzen ahal diren eta onartu diren gastuen % 50 baino gehiago izanen.

Dirulaguntza eman baino lehenago, behar izanez gero, batzordeak eskatzaileari deitu ahal izanen dio honek behar dituen azalpenak eman ditzan.

Udalak onartutako dirulaguntza ordainketa bakarrean emanen du, gastuak justifikatu eta ondoan: burututako jardueraren oroitidazkia edo memoria, jarduera egiteko erabili diren bertze diru-laguntzen edo bertzelako diru-sarreraren gaineko erantzukizun-aitorpena.

Gastuen justifikazioa ondoko urteko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko da,

Diru-laguntza hauek bertze batzuekin bateragarriak dira. Edozein kasutan, diru laguntza guziak baturik ez dute diruz lagunduko den jardueraren gastuen % 100 baino gehiago izanen.

Ekitaldi batean diru-laguntza jasotzeak ez du ondoko deialdietan diru-laguntza jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

4. IRIZPIDEAK

Diru-laguntza ezartzeko batik bat honako hauek hartuko dira aintzat:

1. Jarduera tokiko kulturari lotua izatea lehenetsiko da. 10 puntu gehienez.
2. Euskararen erabilerari eta sustapenari laguntzea. 10 puntu gehienez.
3. Herritarren parte hartzea baloratuko da. Borondatezko lana konturan hartuko da. 10 puntu gehienez.
4. Jarduera erakunde eskatzaileak berak eta haren kideek antolatua eta burutua izatea. 30 puntu gehienez.
5. Baztanen egoitza soziala duten erakunde desberdinen arteko elkarlana baloratuko da. 10 puntu gehienez.
6. Elizondotik kanpo egiten diren ekitaldiak, Baztango gainerako herrietan egiten direnak alegia, baloratuko dira. 10 puntu gehienez.

5.UDALAREN BETEBEHARRAK

Diruz lagundutako jarduerak agendan sartzeari, betiere antolatzaileek epearen barnean horren berri ematen badute.

Udalak bere materialak, baliabideak, lokalak... erabiltzen utzi behar du.

6. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izan behar dituzte:

Diru-laguntzen onuradunek diru-laguntza eman diren xedeetarako erabili behar dituzte eta hala izan dela agirien bidez ziurtatu.

Onuradunek behin proiektua akituz gero, jardueraren oroitidazkia edo memoria, balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) bai eta jarduera egiteko izandako gastuen frogagiriak, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte, hurrengo urteko ilbeltzaren 15a baino lehenago.

Onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako beste edozein laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideren berri eman beharko diote Baztango Udalari.

Onuradunek indarren dagoen araudia bete beharko dute, batez ere Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantza.

Onuradunek diruz laguntza jaso duten jardueren publizitate eta hedapenerako Baztango Udalaren ikurra erabili beharko dute.

Onuradunek programaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera, gertatzen den unean berean jakinarazi beharko diote Baztango Udalari.

Oinarrietan aurreikusitako betebeharren bat ez betetzeak laguntzaren baliogabetze osoa edo haren zati batena ekarriko du.

8. DIRULAGUNTZAREN ITZULKETA

Diru-laguntzak emateko ebazpena baliorik gabe utziko da eta jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Diru-laguntzen gainekoak, II. Tituluko I. eta II. Kapituluetan aurreikusitako egoeretan eta ezarritako moduan.

9. ARAU-HAUSTEAK

Ondoko portaerak dira diru-laguntza eta laguntza publiko arloko administrazio arau-haustek, baldin eta horietan dolu, erru, edo, besterik gabe, arduragabekeria badago:

- Diru-laguntza edo laguntza bat eskuratzea, hori hartzeko baldintzak faltsutuz, edo hura eragotzi edo murriztuko zutenak ezkutatu.
- Jasotako kopuruak ez erabiltzea diru-laguntzaren xedeetan, baldin eta ez bada diru-laguntza itzuli aurretiko errekerimendurik gabe.
- Erakunde onuradunari edo zuzenbidezko edo egitatezko administrazio gisa aritutakoei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik, diru-laguntza ematerakoan ezarritako eginbeharrak ez betetzea.
- Erabilera ez egiaztatzea, jasotako funtsen edo egiaztapen faltsuen ondorioz.

Lehen aipaturiko portaerak agertzen dituzten elkarte onuradunak izan behar dira arau-hausteen erantzuleak.

Itzuli beharraren eta —halakorik badago— zehapenaren erantzuleak izanen dira, subsidiarioki, egitezko edo zuzenbidezko administratzaileak; alegia, betebeharrak saihestu (nahiz eta beren esku egon), ez betetzea ekarri duten erabakiak hartu edo beren mendekoen urraketa onartu zuten pertsona juridikoen administratzaileak.

Gainera, jardunak utzi dituzten pertsona juridikoek itzuli beharreko zenbatekoen eta ordaindu beharreko zehapenen erantzule subsidiarioak izanen dira egitezko edo zuzenbidezko administratzaileak.

Administrazio espedientearen bidez ezarriko dira zehapenak; eta entitate interesdunari entzunaldia emanen zaio beti, erabakia hartu aitzin. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean xedatzen denaren arabera tramitatuko da espediente hori.

Arau-hausteengatik isuna ezarriko da: gaizki lortu, gaizki aplikatu edo justifikatu gabeko zenbatekoa halako hiru, gehienez ere.

10.ERREKURTSOAK.

Deialdiak agiri honek bildutako baldintzei jarraituko die; agiriak ez bildutakoari dagokionez, ondoko arauei jarraituko die: Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legea, Nafarroako Tokiko Ogasunen Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legea eta, osagarri gisa, Aurrekontuen gaineko Lege Orokorra, diru-laguntzak arautzen dituen estatu mailan.

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio egintzen aurka errekurtsu hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

1.–Jakinarazpen hau jaso eta hurrengo hilabetean eta aukeran, berraztertzea, hura egin zuen udal organoari zuzendua (azaroaren 25eko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua). Berraztertze errekurtsoa aurkezten bada, ezin da ez gora jotzekorik ez administrazioarekikorik aurkeztu, harik eta lehenbizikoa ebatzi edo ustez ezesten den arte. Berraztertze errekurtsoarekin ebazpenaren kontra ezin izanen da errekurtsu hori bera berriz aurkeztu.

2.–Hilabeteko epean, jakinarazpenetik hasita, gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua (uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea). Errekurtsu hau aurkezten bada, ez da administrazioarekikorik aurkezten ahalko, harik eta gora jotzekoa ebatzi edo ustez ezesten den arte.

3.–Bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jurisdikzio horretako organo eskudunari zuzendua (uztailaren 13ko 29/1998 Legea).

11–DIRU-LAGUNTZEN ARAUDIA

Diru-laguntza hauen lege oinarria ondoko hauek dira: Oinarri hauek eta hauek ez ezik, dagokion urterako Baztago Udalaren Aurrekontua Betearazteko Oinarriak; 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Toki-Administrazioaren gainekoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei

buruzkoa; 887/2006 Errege dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren,
Diru-laguntzei buruzkoaren Araudia onesten duena eta horiekin bat datorren gainerako legeria.